

TELESFORO MONZON

(1904-1981)

Olasoneko Telesforo Monzon euskaltzain urgazle jauna 1981.eko Martxoaren 9an hil zen Baionan. Bergarako Olaso jauregian sortua zen 1904. urteko Apirilaren lehenean. Ortiz de Urruela zen bigarren deituraz.

Lege-gizon estudioetan ibilia zen, baina barrera bukatu gabe utzi zuen. Gazterik heldu zion politika bideari eta zenbait kargu izan zituen. 1936.eko gerrateak hartu zuen eta Eusko Jaurlaritzako Gobernamentuko kontseilaria izan zen. Ondorioz, gudu hura galtzeaz, deserritze luzea ezagutu zuen. Orduan eman zion euskarazko literaturgintzari. Eta, politikan ospe handia hartzera heldu bazen ere, haintzat hartu beharrezko literatura eskaini zigun eta arrazoi hauengatik izendatu zuen Euskaltzaindiak 1966an bere urgazle.

Lehen frutua *Urrundik* (México, 1945) olerki liburua izan zen eta bigarrena *Gudarien eginak* (Donibane-Lohizune, 1947) zeritzana, genero berean.

Zaitegi zenak *Euzko-gogoa* Miarritzera ekarri zuenetik (1956), Olaso izenordez bertan idazteari eman zion, baina baita ere *Gure Herria* zeritzanean ere. Gainera, olerki eta zenbait artikuluz aparte, antzerkiak idazteari eman zion eta hara hemen beretariko batzun izenburuak: *Lau kantari eta xori bat* (1957), *Gure behia hila da*, *Menditarrak* (1958), *Hazparneko anderea* (1966), *Hazparneko bozkarioa*, *Ur garbi*, *Behorraren ostikoa* eta *Eneko bizkai eta Maria Lorka* (1966). Zortzi horiez gainera besteren bat ere izan behar du. Denak, gehien bat, nekazari munduari lotuak gaiaren aldetik. *Menditarrak* zeritzana Ifar Euskal Herrian aurkeztu zenetik gainerako guziak ere harrera ona izan zuten. Une hartako berotasunagatik edo, E. K. A. (Eusko Kulturaren Alde) zeritzan erakundeok Monzontzat Literatur Nobel Sari eskaria egin zuten. Orduan, idazkari sartu berri nintzen Euskaltzaindian eta ondo oroitzen naiz nola bultzatu zuten euskaltzainburua Sueziako Enbaxadara gomendiozko gutun bat idaztera.

Baina, beraren ekintza literarioan, aipagarrietakoak, batez ere ideia eta sentipenen aldetik, kantak dira. Eta, kantok, beraren lehen bi liburueterako olerkiei loturik jarriko nituzke. Haiek ere kantatzeko eginak bai ziren. Orduko zabaldunkerik ezak eta geroko neurritz gainerakoak, neurriok eten ditu. Egia esan, azkenaldikoak zerbait biziagoak eta burrukalariagoak dira. Guziak dira aberkoiak. Gaur egun euskal literaturan poesiak hartu dituen goi mailetan jartzekoak ez badira ere, doinu arinez ondo hornituak daudenez, herrikoitasunaren jabe dira eta horregatik izan dute hain harrera ona. Besteak beste, oroi, "Bai euskarari" kanta ere berak egina zela.

Azken urteetan, zenbait kanta egitez aparte, berriz ere politika ekintzei lotu zen eta literaturgintzatik urrundu.

Martxoaren 12an ehortzi zuten Bergaran abertzale suhar eta euskaltzale zintzoaren gorpua. Zenbait euskaltzainek han erakutsi genuen dolumina berriz agertuz, bijoja gure egurra (G. B.).

J. S. M.